

BERASA EDO ZALANTZAREN APOLOGIA

Ander Audikana

Gasteiz, 17 urte

(...)

– Izan ere –esan nuen– ez baitago mundu ulergarriaren azken mugan ere jakintza osoagorik, eta gutxiago oraindik mundu ikusgarri honetan. Ez dago ezer esaterik, gutxi dugu honezkero gehitzeko eta barkatuko didazu, lagun, baina gaurkoan uste dut soberan daudela hitzok, egia esateko, arrotzak nabari baititut. Gaurdaino eraiki dugun jakintza gorena hobetu ezinean egonik, hau zikintzeko beldur izango balira bezala.

– Baina –ekin zion– ez al zara zu, maisu, maieutikaren defendatzaile sutsua? Ez al duzu behin eta berriro zure ez-jakintasuna aldarrikatu gizaki guztien aurrean? Nolatan konformatuko gara gaurko egunez daukagunarekin, galderek bizirik dirauten artean, baldin eta dagozkien erantzunak haragitzeko ahalmena izanik? Gainera hitzez beti sobera gabiltzan arren, larri ibiltzen bide gara hitz horiek geureganatzeko astiaz, nahiz eta bi izan entzuteko ditugun belarriak eta bat bakarra mintzatzeko mihia. Beraz eman diezaiogun, erabat jakintzat badugu ere, beste birpasa bat zuk hezitako egia horri, nire belarriak hala eskatzen didalako eta, jakin badakizunez, zure hitza dela egarri hori asetzeko gai den bakarra.

– Ezaguna nuen zure izena, Berasa, eta urrutiko lurretatik etorria zinenez, azkar asko interesatu

nintzen zure bisitaldiaz. Baina asmatzen hasia naiz ez zirela aski osatuak zurekiko ezagutu nituen deskribapenak, argalak eta laburrak geratzen zaizkizu honezkero iraganeko haiek, eta neu arduratuko naiz aurrerantzean zure izenik aipatzerakoan agi gera dadin zein den zure bene-benetako jakintza.

– Zure hitzek harrotzen naute, Sokrate haundia. Baina jakin ezazu zure laudorioek batik bat urduritu egiten nautela, halakoak baitira Sofistei luzatzen dizkiezunak, zure ezagutzarik eza bermatzen duzun bitartean.

– Lasai egon zaitezke, esandako guztia pentsatzen dudanaren ondorioa baino ez delako –esa nuen–. Eta orain faborez, esaidazu, Berasa, zure belarriek jauzi egin aurretik zer den nahikoa kezkatua zaituen hori.

– Ez nuke –ekin zion– Sofisten baldarkeria nire bihurtu dudala iruditzerik nahi, baina, nere ez jakintasunaren erruz beharbada, egia esan behar badut, bada zure idatzien artean, izar uxoen antzera, deigarri ageri zaidan esaldiren bat, edo akaso hitz xumea dena, baina hain xume ezin liteke zurea izanik eta izarrekin parekatzea merezi baldin badu. Hortaz, eta lehenbailehen nere jomugara heltzeko asmoz, ezeztatu edo baieztatu ezazu, maisu, egitera noakizun proposamena. Ez al da hezkuntza on bat, gizakiaren garapena nahiz estatuaren zein pertsonen zorionaren iturri nagusietako bat? –buruarekin esandakoa onetsi eta jarraitzen utzi egin nion–. Orduan, bat gatoz biok, ez baitaiteke ulertu zoriontasunik hezkuntzarik egon

ezean. Zuk ondo baino hobeto azaldu duzu aurreko hau eta baita formakuntz prozesua bideratzeko zientzia onuragarrienak zerrendatu ere. Baina problematikaren gailurrera heldurik, hitz bat erabiltzen duzu eta pentsatzen jarrita, hau uste dut izan daitekeela nire kezka guztiaren muina: dialektika.

– Berasa maitea –erantzun nion–, harritu egiten naiz, ezen zure gaitasunak, horrenbestekoa izanik, antzua baitirudi hain kontzeptu ulerterrezaren ondoan. Dialektika, jakin ezazu, noizpait Glaukon lagunak ikasi zuen bezala, *zentzumenak batere erabili gabe, arrazoimenaz baliaturik gauzen bere baitangoa azaltzeko, ongia bere horretan zer den argitzea* da. Dialektika arrazoimena da, filosofatzea, adimena-ren gailurra ikutzea, zientzia erreala.

– Uler dezakedanaren arabera, bakarkako lana deritzozu, ez da hala? –espero ez nuen galdera zen hura.

– Bai, zuzen zabilta. Bakarkako lana da. Ongia, zuzentasuna, justizia... norberak bere kasa lekutu beharreko kontzeptuak dira. Ba al da egia unibertsal hauek beste nolabait aurkitzeko erarik?

– Izan gaitezen ausartak eta aldi berean zuhurak hipotesi honen aurrean. Gogoan izango duzu Heraklito haundia, ez al da hala? –nola ahaztuko nuen bada?–. Eta gogoan izango duzu, ziurrenez, haren filosofia dialektikan oinarritzen zela. Baina ez zen zure dialektika bera. Zureak arrazoimena hartu zezakeen sinonimo gisa eta jakinbide autonomo batean datza; aitzitik, haren dialektikak ideien kontrastean zuen oinarria, *gerra da ororen*

jaiotza, zeren beti egongo dira bi sujetu kontrajar-
tzen direnak.

- Ondoren –jarraitu zuen Berasak– irudika ezazu eguna eta gaua. Eguna, Eguzkik dakien modura, ordu argien multzoa da, eta ordu horiek iritsi bezain laister barnekaldeko herrixketen nekazaria goiz lotzen zaio lanari bere baratzean; kosta partean, aldiz, itsasontziei azken ikutuak emanaz arituko dira arrantzaleak; itzal ahal guztidunetik itzal txikiak agertzen hasiko dira, ertainak askoz jota; txoriek abestuko dute gauean abestea debekatua izan zaiena eta baliteke gu biok, eguneko ordu horietan azokara bidean izatea, auskalo ze erosketa egiteko asmotan. Aurreko hau eta halako beste mila ezau-garriren bidez imaginatzen dut eguna.

- Gaua, Ilargik dakien modura, ordu ilunen multzoa da, eta ordu horiek iritsi bezain laister nekazariak goldea lurrean etzango du, lotan, eta bere esku zaurituak garbitzera abiatuko da; arrantzaleak ere abiatukko dira etxerantz itsasontziak kaian ondo lotuta utzi bezain azkar, zeren eta gaua murgiltzen hasten bada eta artean itsasontzirik heldzeke bada, go, urduritasuna arrunt nabarmenki azaleratuko da emazteen aurpegietan; itzal ahal guztiduna etorriko da berriro ere; txoriak mutu agertuko zaizkio ilargiari, haizeari; eta litekeena da gu biok gau parte horretan azokatik bueltan izatea, auskalo zenbatean erosi dugun zeozer besapean dakargula.

- Horra hor, Sokrate, eguna lehenik eta gaua jarrian. Nabarituko zenuen, horrenbeste adibide erabiliak izan diren honetan, eguneko gertaera

guztiek beren aurkakoa dutela gau aldean, eta ondorioz, ezaugarrien kontrajartze honek bereizten duela, alde batetik eguna eta bestaldetik gaua. Eguna beharrezkoa zaio gauari, azken honek bere izaera jaso dezan eta baita gaua egunari ere, arrazoi bera delarik medio.

– Barkatu nazazu, Berasa laguna –hasi nintzaion herabeti–, baina asmatu ezinik nabil non ote den, neuk Dialektikari atxeki diodan garrantziaren eta definizioaren huts egitea...

– Kontu egizu, bada, arestian bakarkako lantzat izendatu duzula Dialektika eta horrenbeste, eza-gutza errealarekin topo egitea norberaren ardura-pean isolatu duzu. Baina hori, Sokrate, ez al litza-teke eguna definitzen saiatzea bezala, gauaren iza-era zertan den jakin gabe? Posible al da egun hitza erabiltzea, gau hitza oraindikan asmatzeke bada? –galdetu zidan eta erantzun baten faltan luze gabe jarraitu zuen–. Bihur dezagun bidea errezagoa eta zuzenagoa eta horretarako demagun beste propo-samen hau: Dialektika bakarkako lana den neu-rrian, arrazoimena izango omen da, egia absolutoa bilatzerako orduan, norberaren tresna bakarra. Baina hori horrela izanik, eta bide batez barkatu ezazu galderaren sinpletasuna, zertarako behar nauzu zuk orduan?

Isiltasuna nagusitu zen. Eta erantzuteko keinua egin nuenean, hau gehitu zion bere hitzaldiari:

– Ez, ez ezazu erantzun oraindik. Atzeratu deza-gun geroko erantzuna eta utz iezadazu aurrena, Zalantzaren Apologia gauzatzen.

– Mundua ez da, Sokrate maitea, atzo goizekoa. Gu ez gara, gure belaunek hala adierazi nahi diguten arren, honen zaharrak, baldin eta nahikoa atrebentzia izango bagenu gure adina mundu honek bete duenarekin konparatzeko, eta litekeena da, aldi berean, honen gazteak ez izatea, munduak luze iraungo baitu, gaztetasun apartekoa dauka aurrerantzean. Mundua ez da, Sokrate maitea, atzo goizekoa, ezta bihar artekoa ere. Baina denbora ez denez geldituko, harengan erreparatu arren, hobe dut nere hitzen bitartez itsasontziaren lema zuzentzea eta abian jartzea gure xedearen bila, ez *zoriontsuen irlalara*, baizik, hain zuzen ere, zalantzaren irlarantz –erretasunez lotzen zituen esaldiak–. Ez dakit ezagutuko duzun; agian entzugo zenuen noizpait gaur kontatzera noakizun istorioa, *Tximuaaren alegoria* deitua izan dena.

– Ez, Berasa, ez dut entzun, baina ziur nago zuri esker ondo ezagutzeko aukera izango dudala...

– Ez izan zalantzarik, maisu –eta instant batzuren ondotik, ekin zion, zuhurki, lasai eta miresgarri–Artean urrunekoak ziren Egiptoko piramideak, eta hauek bezain haundia zen Pertsiar inperioa eratu gabe zegoen, Athenaseko arkitektura asmatzeke eta Perikleren garaia imajinaezinak. Orduan, ez zen hizkuntzarik, eta mugarik urik eta mendirik ere ez, ezarritakoez gain. Munduan ez zegoen giza-kirik, horiek geroago biziko ziren eta egun hori heldu bitartean, naturarena zen hitza.

• Eta natura urte haietan lehor agertzen hasia zen. Egun bateko oihan eta zuhaitzak desagertzen

zihoazen eta gero eta zabalagoak ziren estepa guneak, eta are urriagoa zuhaitz haietatik animalia ezberdinek jan zezaketen elikagaia. Zenbait animalia mota gosez hil zen, egoerak txarrera egiten zuen neurrian eta betidanik bertan bizi izandako tximu (*pithecus*) talde batek ere, elikagai gabezia zela medio, desagertzeko arriskua zuen. Heriotzaren hurbiltasun honek, iraunarazteko sena deituko dena, ordurarteko bizitzarekin apurtzea ekarriko zuen eta azkeneko hau ebazteko, beharrezkoa izango zuten, nahitaezkoa, zalantza. Nahiz eta pentsatzeko ahalmen gutxikoak izan, tximuren batek pairatu izango zuen zalantzaren egoenezina, eta horren aurrean erabaki bat hartzeko eskatu zion egonezin horrek.

- Honezkero asmatuko zenuen, Sokrate, tximu horrek aukeratu zuena. Baliteke naturari automatikoki emandako erantzuna izatea, baina, egia esanda, tximuren batek, oharkabean bada ere, bere gain hartu zuen erabakiaren ardura, zalantza bat agertzen zaigun guztietan halakoa baita gure jokaera. Ez dago erabakirik zalantzarik egon ezean, inork ez du zertan bere burua erabili, zalantzak bere ateraldia egingo ez balu. Baina nik baino hobeto dakizu zuk hori, greziarra izanik, ondo eza-guna izango baituzu atsotitz greziarrak dioena: *ezer gutxi daki zalantzarik ez duenak*.

- Tximu talde hark abiatzeko erabakia hartu zuen azkenez eta oihanak eta zuhaitzak atzean utzirik bideari ekin zion, elikagai berria aurkitzeko asmoz, estepa luzeetan barna, eta nahigabea, baita mundu berri baten bila ere.

- Duela gutxi zure jakintza agrian jarri duzu, Berasa laguna –esan nuen-, eta orain zure irudimenaren distirak arrunt itsutu nau. Poeta haundien antzera darabilkizu hitza, eta Sofistek ez bezala, ezagutzaz loditutakoa gainera. Horrez gain ados nago diozun guzti horrekin. Bai, zalantza egarria bezelakoa da, eta egia eskuratu nahi izatea, ura edatea bezelakoa.

- Zuzen zabilta, nola ez, Sokrate haundia –esan zuen-. Eta ez al duzu uste zalantzarik gabeko hiritarrek ez dutela inoiz ere ezagutzarik aurkituko? Posible al litzateke, beren Estatuko agintarien agindupean, hauen mensaiari erreparatu gabe, hiritar fidel eta zintzo tankeran jokatzen dutenek inolako ezagutzarik bereganatzea? Ez al da egia, hiritar orok duela zalantza pizteko eta berau Estatuko agintariei azaltzekoa eskubidea, hala nahi izango balu?

- Zure iritzikoa nauzu –erantzun nion- halere, ezin ahantz daiteke, ez dela soilik Estatua, haren boterea ukazina gerta dakigukeen eta edozein motako zalantza ekiditu nahian, iritzi bakarra eta eztabaidazina zabaltzen duena. Zure hobebeharrez izan ezazu betiko present, badirela zorigaitzeko hiri honetan are botere gehiago, Estatua bezain gaitzesgarriak direnak. Haietako batzuk hain dira boteretsu eta mesprezagarriak, non beren bidea burutu nahi duten, kosta hala kosta eta, askotan gainera, beren auzokideen odola xahutuz.

- Beraz, hona hemen, bi botere. Askotan kontrajarriak diren arren, beti baliokideak, biak arbuigarriak diren neurrian. Batak zein bestek

zalantza desegoki ikusiko du, eta lekuz kanpoko irudituko zaio, eta haren beldur izango da, eta inporta zaion gauza bakarra bere boterean zirrikiturik ez agertzea izango da –eten egin zen momentu batez, jarraian esatera zihoana birritan pentsatu nahian balebil bezala–. Hori dela eta, arriskutsua izango zaio, hiritarrek edozelako zalantza argiratu nahi izatea eta, era berean, botereak ez luke inoiz ere onartuko gaurko egunez gauzatu nahian gabiltzan honako zalantzaren apologia hau.

– Diozuna oso da zentzunezkoa –esan nuen.

– Eta bukatzeko, ez al duzu uste botere batek zein besteak metodorik mesprezagarriena erabiliko luketela, era baketsuan zalantzak planteiatzen dituztenen aurka? Batzuetan heriotza, besteetan kartzela?

– Hala da –esan nuen, eta doinu mingotsez gehitu nuen honako hau–. Nor hobeto ni baino boterearen krudelkeriaren berri emateko?

– Atrebentzia haundia ez bada –esan zuen–, gogora ekarri nahi nituzke Fedro lagunari eskeini zenizkion hitzak eta, batez ere, Gurdi Hegaduna deitu zenuen mitoa. Ez dut mito hau, zuk erabili zenuen zentzu berean erabiliko, nik beste helburu bat baitut buruan, baina iruditzen zait baliagarria izango zaigula zalantzaren apologia honi pisuzko arrazoiak bilatu nahi badizkiogu. Zeren, eta hona hemen mito hau hizpidera ekartzearen zergatia, ez da nahikoa gauzak zalantzan jartzeko eskubidea aldarrikatzea, beharrezkoa zaigu egia absolutoen aurka altxatzea.

- Bada herri txiki bat munduaren ertz batean datzana. Imagina ezazu herri hau gurdi hegadun bat balitz bezala. Gurdi hau bi zaldiri esker aurrera egin nahian dabil, baina ezinezkoa zaio, zeren bi zaldik norabide ezberdinean tiratzen baitute. Zaldi biak ezberdinak dirudite hasiera batean, bata zuria eta bestea beltza delako.

- Baina denbora joan ahala, konturatzen gara, toki ezberdinetara tiratzen duten arren, biek bortizkeria eta zalaparta gaitzesgarri berbera erabiltzen dutela bere xedea lortzeko; konturatzen gara, haien begietara so eginez, ez dutela amore emateko itxurarik, ez direla inolaz ere, inon eta inori barkamena eskatzeko prest egongo, ez dago haien bihotzetan hutsunea eta gorrotoa besterik eta hala jarraitzen dute, amorru biziz borrokan; konturatzen gara batak zein besteak ez dituela bere okerrak onartzen, eta bakoitzak bere egia aldarrikatzen duela egia absoluto erreal bakartzat, autismo izugarria erakutsiz. Konturatzen gara, azken batean, kanpokaldetik ezberdinak agertzen zaizkigun bitartean, bi zaldiak arraza berekoak direla.

- Honen bitartez –esan nuen– lehen bi botereei buruz hitz egiten genuen bitartean, orain bi zaldi bezela irudikatzen ditugu. Ez al da hala?

- Zuzen zabilta beti bezela, Sokrate. Eta jakin ezazu herri hori, gurdi hori, aurrera jo ezinik dabilela, bi zaldi erotuen erruz –argitu zuen Berasak–. Baina hau gutxi balitz, zaldi bakoitzak soilik bere garaipenean pentsatzeaz gain, zaldi baten zein bestearen alde agertzen ez diren hiritarrei ez diete tar-

teko beste zaldi bat proposatzen uzten. Zaldi zuriak esaten die: *Zaldi beltza gaiztoa da, egon zaitexzte nire alde eta inoiz ere ez nire aurka.* Zaldi beltzak, ordea: *Zaldi zuria gaiztoa da, egon zaitexzte nire alde eta inoiz ere ez nire aurka.*

– Ulertu dudala uste dut –esan nuen–, baina esan iezadazu, herri horretako hiritarrek ba al dute, zaldi zuria eta beltza alde batera utzita, beste aukerarik?

– Bai, noski, lagun maitea. Iritziak, koloreak bezala anitzak dira, ezberdinak. Pentsa ezazu, adibidez, zer gerta daitekeen zuria eta beltza nahasterakoan. Ez al da grisa deritzogun kolore berria sortzen? Baina ez pentsa grisa kolore bakarra denik, bere barruan zuriari eta beltzari kontrajaritzen zaizkion kolore guztiak baitaude: horia, gorria, berdea, urdina... Kolore ezberdineko iritzi guzti hauek, seinale ontzat hartu beharko lirateke herri txiki hartan eta errealtatean gertatzen den ez bezela, zaldi beltza edo zuriaz gain, hainbat eta hainbat zaldi, hainbat eta hainbat kolore ezberdineko hainbat eta hainbat iritzi ezberdinez korrika egin beharko lukete kaleetan edo hegan teilatuetan, eta denen artean, gurdia berbideratu, ametsetako Estatu idealaren koordenadetarantz.

– Miresten dut zuk diozuna, Berasa haundia, ez dago zure hitzaldian pausa bat bera ere lekuz kanpo. Baina diozunaren arabera, ez al ginateke Sofisten erlatibismoari eta eszeptizismoari paso ematen ariko? Ez al dago egia unibertsal eta absolutorik?

– Urrutikoa eta arrotza nabari dut egia hori, baldin eta izango balitz. Ez dut egia absolutoetan sinesten, ez haien beharrean. Nahiago ditut iritzi bateragarriak, egia ukaezinak baino. Hori bai, nire aburuz, eta honetan nerekin bat etorriko zarelakotan, iritzi guztiek ardatz baten inguruan bira eman-go dute: *giza eskubideak*.

– Ados nago zurekin, lagun –esan nuen–, baina nik are gehiago esango nuke, ez soilik giza eskubideak, baita, oro har, *bizitzaren eskubideak* ere.

– Ezin hobeto borobildu duzu, maisu –nere proposamena onartu zuen.

Gero, isiltasun labur baten ondotik, hau galdetu nion:

– Bai al da benetan hizpidera ekarri duzun herri-hori edo irudimenezkoa al da soilik?

– Nahiago nuke, bai, dena nire irudimenaren kontua balitz, baina ez da horrela, herri hori zinez bizi baita eta bizi gainera, kontatu dizudan egoera horretan. Segurtasun osoz mintzo zela zirudien.

– Eta zein herrik du, jakin badaiteke, zorigaitz aparteko hori?

– Nire herriak, maisu, nire herriak.

– Heldu da –ekin zion berriro ere– arestian zintzilik eta erantzunik gabe utzi dugun galderari erantzuteko momentua. Beraz, esaidazu, arreta ase ezineko gizona, zertarako behar nauzu zuk orduan?

– Elkarrizketarako –erantzun nion, ahots aratzez–. Zu zaitut nire trebezia nahiz hutsegiteen ispilurik zehatzena eta egiazkoena.

- Ongi diozu, ezin hobeki -erantzun zidan eta lasai geratu zen, bere nahia lortu duen pertsonaren lasaitasunarekin-. Naturak hala nahi izan delako beste animaliangandik bereizten gaituen bertute bat atxeki digu: hitza. Grezia osoa korritu arren ez duzu hitza erabiltzen duen inolako naimaliarik topatuko, eta are gehiago esango nuke, itsasotik haratago joateko beharrezkoa den ausardia bazenu, ez zenuke ez ohian hezeetan, ez basamortu idor haietan beste inolako animaliarik topatuko gizakia baino. Egia da, animaliek soinu ezberdinak igortzen dituztela, baina bakardadean ere luzatzen dituztenez gero, ondoriotza genezake, ez direla igorritako hots horiek modu erabat kontzientean burutzen, gizakiaren kasuan bezala, baidik dituzten sentrazioak automatikoki botatzen dira, bat batean, hitz bihurtu gabe.

- Ezinbestekoa deritzot, nere adiskidea, zuk diozuna barneratzea -esan nuen-. Honezkero jakin beharko genuke, gu garelako mundu honetan inoiz kontzepturik zailenetan aldrebestuenak pertsonatik pertsonara transmititzeko gai. Baina askotan, badirudi zenbaitek birtute hau ahantzi egiten dutela, eta beste bide bat erabiltzen dute, ziurrenez beste animaliena baino mespreziagarriagoa, indarkeria deitzen dugun hori, hain zuzen ere. Diozunaren arabera behinik behin, zure herri horretan bada halakorik, ez al da hala?

- Hala da bai, zoritxarrez -Berasak luze eutsi zion hasperenari edo hobeto agian, hasperenak Berasari-. Hala da. Geldo eta ilun doakigu denbo-

ra gure herri horretan, aspaldidanik dirudi, denbora eten egin dela, eguzkia izoztu balute bezala eta ikusteko aukera dugun bezala Ilargi da, bakarririk, aurpegia zurbila duelarik, eta malkoak haren begietan. Beharbada, ilargia askori gertatzen zaigunaren islada besterik ez da, beharbada arrazoi zuen poetak honakoa idatzi zuenean:

*Herri honetan
badakigu zergaitik egiten den negar
baina ez zertarako
bat gehiago edota bat gutxiago
esan behar den ez dakigun bezala*

• Asko dira urteak, asko ezbeharrak, nekea ere emeki jasangaitza ari zaigu bihurtzen. Eta Ilargi han datza, zeru partean, beste heriotz baten berri duenean malkoa dariola –esan zuen–. Halere, kostaldean bizi zarenez gero ezagutuko duzu, Sokrate, ur arinak nola higatzen duen harkaitza. Ildo horretan, espero dezagun, gizakien bihotzak, batzutan harkaitzen irmotasuna erakutsi nahian dabilzan arren, egunen batez, ilargiaren malkoen gozotasunaren bidez, biguinduko direla. Eta egun horretan, zorioneko egun horretan, bihotz biguindu horiek, salto eta negar, bizi eta barre egiteko gauza izango dira, eta hau dena adierazteko hitza behar-kodute, hitza edo elkarrizketa.

– Norberak du hitza –esan nuen–. Eta lasai egon zintezke, Berasa adiskide maitea, arestian esan didazun bezala, *eguna beharrezkoa zaio gauari, azken honek bere izaera jaso dezan eta baita gaua egunari ere, arrazoi bera delarik medio*. Hortaz, nahiz eta gaur

gaua eta iluna den zure herri horretan, noizpait eguzkia azaldu beharko da. Eguzki beroa, egun berriaren etorrera.

– Inoiz frogatu dudan ardorik hoberena da honako hau –esan nuen, Berasak hizketaldian zehar zerbitzatu zidan ardoa zela eta.

– Nere herritik ekarritakoa duzu, Sokrate, ezta-rritik behera doakizun honako ardo hau. Erromatarrei eskerrak! Haiek erakutsi ziguten ardoari buruz jakin beharreko guztia...

– Erromatarrek diozu? Nortzuk dira horiek bada? –galdetu nion. Berasak barre egin zuen eta ez zidan erantzun nahi izan–. Dena dela, ba al daki-zu zuk nortzuk ziren pertsiarrak? –buruarekin baietz adierazi zidan– Herodoto haundiak ondo aztertu zituen eta haien ohiturak adimen haundiz bildu zituen liburu batean. Hona hemen Herodotok dioena, liburuko pasarte batean: *Bestalde, arazorik larrienak mozkortuta daudelarik eztabaidatzen dituzte, eta hurrengo goizean, mozkorraldia igaro zaielarik, etxe horretako ugazabak gaueko eztabaidan hartutako erabakiak planteiatzen ditu denen aurrean. Horiek horrela, erabakia egokia iruditzen bazaie, praktikara daramate; aitzitik, desegokia dela uste badute, muzin egingo diote.*

– Ni behinik behin ez nago oraingoz mozkortuta –ekin zion Berasak–, baina formula ona litzateke, baldin eta horrekin bihotz gogortuak biguintzea eta aho mutuak elkarriketara bultzatzea lortuko balitz. Ez al da hala?

– Hala da, bai –erantzun nion eta ardo pixkat eramán nuen ezpáinetara–. Zoragarria benetan! Nola liteke, halako ardoa izanik, zure herrian hainbesteko arazoa izatea?

– Harik eta bere buruarekin bakean bizitzeko gai ez den arte, gizakiak ez du hiriko elkarbizitzarekin asmatuko.

– Egin dezagun topa, Berasa maitea, zure herri horretara abiatu zaitezen aurretik.

– Ongi da –ebatzi zuen berehala–. Eta zeren alde egingo dugu bada?

Galdera zintzilik geratu zen, airean, udazkeneko hostoen gisa, geldi bezain hauskor oreka amaiezi-
nean. Biok elkarri begiratu genion. Bazirudien instant horietan zalantzak ihes egin zuela gure buruetatik. Mundu osoan ez zegoen, momentu horretarako hitz aproposagorik eta guk aurkitu genuen. Aho batez azaleratu genuen:

– *Askatasuna!*

Eta udazkeneko hosto preziatua libre geratu zen.